

AZKENIK!

Gizarte nafarra bere osotasunean, gure Aberria den hori, oinperatua jarraitzen du, etengabe konkistatua, zatitua, menderatua eta ukatua. NAFARROA DA SUBJEKTU POLITIKOA, subiraua eta ezberdindua.

Horri esker bermatu ahal izango dugu pertsona guztientzat, batasuna eta BERDINTASUNA, enplegu tasa osoa, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, segurtasun soziala eta erretiro-pentsio unibertsal eta publikoak, ingurugiro eta ekonomia jasangarriak.

Gizarte politiko nafarraren izatea barnetik ere ukatzen da bere izate konkistatuaren egoera ezagututa horren arabera ekiten ez dutenen eskutik. Nafarren gizarte eta lurralde zatiketa probintzia, departamentu eta eskualdeetan egituraketa zailtasunak sortzen ditu Nafarroa aldatu eta libratzeko ezinbestekoa den BATASUNA lortzeko.

Nazionalistek ondorio bat kausa orokorrekarekin nahastean egiten duten akatsaren aurrean, hau da, ondorioa den gure kultura eta euskararen ordezkapena, honen kausa den etengabeko konkistarekin eta honek dakarren guztiarekin nahastearen aurrean, nafar abertzaletasunaren burujabetasun politika zilegizkoa aurkitzen da, gizarte honen ESKUBIDE eta LIBERTATE guztiak berreskuratzeko xedean. Euskara nafarron hizkuntza da, Euskal Herria politikoki eta estatalki Nafarroa den moduan.

Ezinbesteko ALDAKETA politikoak Prozesu Konstituziogile Nafarra beharko du, hau ekiditen duen sasi-Hobekuntzaren aurrean. Sasi-navarrismoa erregimen antiformal eta honen kasta antinafarrak sortutako iruzur bat da.

Libertate nafarra – Libertad navarra (Ln)-rentzat eskatzen dugu BOTOA Nafarroan aldaketa lortzeko sinesgarritasun handiena eskeintzen duen aukera delako.



libertate nafarra

www.libertate.eu

info@libertate.eu